


BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA

PEÑA Y GOÑI 11



Egilea eta data: Lucas Alday; 1923

Deskribapena

Mehelin arteko eraikina, jatorriz behe oina eta sei goi oin dituen, bosgarrena mantsardatua (proiektuan zertxobait atzeraemana zen) eta seigarrena azpikoarekiko atzeraemana. Harlanduzko fatxada, erdialdeko baoan hormigoizko begiratokia duena. Behe oina lodiera handiko kareharriz estalita, erliebearekin.

Babes erregimena

- 1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
- 2.- Berariazko erregimena.
 - A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: 5. eta 6. goi oinak, atzeraemanak.
 - B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorak: harlanduzko elementuak; elementu moldekatuak.
 - C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez, erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak izan ezik, hala badagokio.